<p>Lan-kontratu mugababea duten langileen kopuru handitzea %20,01tik gora,</p> <p>hobaria: 40</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kontratuen %60 edo gehiago emakumeentzat: 45 • Kontratuen %30 edo gehiago 30 urte baino gazteontzat edo lan merkatuan txertatzko zailtasunak dituzten kolektiboentzat: 45 	<p>Incremento del 20,01% de plantilla de trabajadores con contrato indefinido,</p> <p>bonificación: 40</p> <ul style="list-style-type: none"> • 60% de los contratos a mujeres: 45 • 30% o más de los contratos a personas de menos de 30 años o colectivos con problemas de inserción laboral: 45
<p>2.- Kuotaren % 50, 2/1997 Foru Arauaren 5. artikulua eta kidekoek apaigai dituzten bereziki babesturiko kooperatibei, hots, lehenengo maila duten ondokoei: Elkarlaneko kooperatibei, Nekazalekoei, erkidegoan ustiatzekoei, irakaskintzakoei eta etxebizitzenei eta eraldatzeko nekazaritza elkarteei.</p>	<p>2.- Del 50% de la cuota, a las Cooperativas Especialmente Protegidas de primer grado a que se refieren los artículos 5 y concordantes de la Norma Foral 2/1997, esto es Cooperativas de Trabajo Asociado, Agrarias, de Explotación Comunitaria, de Enseñanza y de Vivienda y las Sociedades Agrarias de Transformación.</p>
<p>3.- Kuotaren %25 eko hobaria udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, baldintza hauek betetzen dituztenean:</p>	<p>3.- Del 25% de la cuota correspondiente para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y que:</p>
<p>1) Energia erabili edo ekoiztea energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetatik edo kogenerazio sistemetatik abiatuta.</p>	<p>1) Utilicen o produzcan energía a partir de instalaciones para el aprovechamiento de energías renovables o sistemas de cogeneración.</p>
<p>Ondorio horietarako, energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioak Energia Berriztagarriak Sustatzeko Planean jaso eta halakotzat definitzen direnak dira. Kogenerazio sistemak, elektrizitatea eta energia termiko erabilgarria aldi berean ekoizteko balio duten ekipo edo instalazioak dira.</p>	<p>A estos efectos, se considerarán instalaciones para el aprovechamiento de las energías renovables las contempladas y definidas como tales en el Plan de Fomento de las Energías Renovables. Se considerarán sistemas de cogeneración los equipos e instalaciones que permitan la producción conjunta de electricidad y energía térmica útil.</p>
<p>2) Langileei zuzendutako garraio plan bat ezartzea lanpostura joateak dakarren energia kontsumoa eta sortutako isuriak murrizteko, eta garraio biderik eraginkorrenen erabilpena, garraio publikoarena edo partekatuarena, sustatzeko.</p>	<p>2) Establezcan un plan de transporte para sus trabajadores que tenga por objeto reducir el consumo de energía y las emisiones causadas por el desplazamiento al lugar del puesto de trabajo y fomentar el empleo de los medios de transporte más eficientes, como el transporte colectivo o el compartido.</p>
<p>4.- Kuotaren %50eko hobaria udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat errenta edo etekin garbia negatiboa dutenean, eta eragiketa-bolumena 10.000.000 baino handiagoa ez bada.</p>	<p>4.- Bonificación del 50 por 100 de la cuota correspondiente para los sujetos pasivos que tributen por cuota municipal y tengan una renta o rendimiento neto de la actividad negativos siempre que no superen los 10.000.0000 de euros de volumen de operaciones.</p>
<p>Eragiketen bolumena eta etekin negatiboa hobaria aplikatzeko zergaldiaren aurre aurreko bigarren urteari dagozkionak izango dira.</p>	<p>Tanto el volumen de operaciones como el rendimiento negativo serán los correspondientes al segundo año inmediatamente anterior al período impositivo de aplicación de la bonificación.</p>
<p>Hobari hau 2022an aplikatu ahal izateko eskaerak 2022ko maiatzaren 31a baino lehen aurkeztu beharko da.</p>	<p>Para la aplicación de dicha bonificación en el 2022 las solicitudes se deberán presentar antes del 31 de mayo de</p>

	2022.
Hobari hauek zergadunak eskatu behar ditu eta eskatu ondorengo hurrengo epean sartuko dira indarrean, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren kudeaketarekin lotutako zenbait alde arautzen dituen azaroaren 19ko 80/1991 Foru Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera egiten direnak izan ezik.	Dichas bonificaciones tienen carácter rogado y entraran en vigor a partir del período siguiente a su solicitud, salvo aquéllas que se realicen de acuerdo con lo establecido en el artículo 11 del Decreto Foral 80/1991, de 19 de noviembre, por el que se regulan determinados aspectos en relación a la gestión del Impuesto sobre Actividades Económicas.
Gauza bat baino gehiagotatik hobaritu suertatuz gero, bakarrik hobaririk handienaz baliatu ahal izango da.	En caso de concurrir dos o más supuestos de bonificación, solamente se aplicara por el concepto que posea el porcentaje más alto de bonificación.

1.02.6.- ERANSKINAK

1.02.6.- ANEXOS

1.02.6.01 - 1. ERANSKINA		1.02.6.01 - ANEXO 1
Gutxieneko kuoten igoera bakarra:	2,2 %	Coeficiente único de incremento de las cuotas mínimas fijadas:

1.02.6.02 - 2. ERANSKINA - UDAL MUGARTEKO BIDE PUBLIKOEN SAILKAPENA: Kategoriak-Indizea-Kodea-Kaleak, plazak edo auzoak		1.02.6.02 - ANEXO 2 - CLASIFICACION DE LAS VIAS PUBLICAS DEL TERMINO MUNICIPAL: Categorías-Índice-Código-Calles, plazas o barrios.
Kokapen indizea:	1,2	Índice de situación:
KALEA	KODEA/CODIGO	CALLE
ARANGUREN POLIGONOA	6055	ARANGUREN POLIGONOA
EGIBURUBERRI PASEALEKUA	6041	EGIBURUBERRI PASEALEKUA
KAPUTXINOAK PENINTSULA	6011	KAPUTXINOAK PENINTSULA
MASTI- LOIDI KALEA	1807	MASTI- LOIDI KALEA
NAFARROA HIRIBIDEA, 6 eta 85	1208	NAFARROA HIRIBIDEA, 6 y 85
TXIRRITA-MALEO KALEA	1808	TXIRRITA-MALEO KALEA
ZAMALBIDE GUNEA	6008	ZAMALBIDE GUNEA
ZENTOLEN GUNEA	6007	ZENTOLEN GUNEA
Kokapen indizea:	1	Índice de situación:
GAINONTZEKO KALEAK	-	RESTO DE CALLES

1.02.6.03 - 3. ERANSKINA	1.02.6.03 - ANEXO 3
<p>Ponderazio koefizientea Zergaren Tarifetan ezarritako kuota minimoak igo egingo dira, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren Testu Bateginaren 11. artikuluan jasotako taula aplikatuz, uztaileen 4ko 4/2012 Foru Arauan idatzita dagoenaren barruan, zeinaren bidez aldaketa jakin batzuk sartzen diren tokiko zerga-ordainketa.</p>	<p>Coeficiente de ponderación Se incrementan las cuotas mínimas, fijadas en las Tarifas del Impuesto, mediante la aplicación de la tabla recogida en el Art. 11 deL Texto Refundido del Impuesto sobre Actividades Económicas, en la redacción dada por la Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, por la que se introducen determinadas modificaciones en la tributación local.</p>

1.03.-ZERGA: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

1.03.1.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.

Udal honek, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauko 4.4. artikulua ematen dion zilegidura erabiliz, udal zergak ordaintzeko sistema berrituan martxoaren 19ko 4/2003 foru arauaren arabera aldatua, artikulua horretako 1. atalean ezarritako gutxienezko kuotak finkatzen ditu ERASKINEAN adierazten den koefizientea aplikatuz.

1.03.2.- ZERGA KUOTA

2. Artikulua.

Aurreko artikulua aipatzen duen koefizientea aplikatuz, Zerga hau adierazitako Eranskinean zerrendatutako tarifa-taularen arabera exijituko da.

1.03.3.- ZERGAREN KUDEAKETA

3. Artikulua.

1. Zerga hau autolikidazio erregimenean exigituko da, horretarako udal administrazioak Zerga honen subjektu pasiboak eta dagozkien espedienteak

1.03.-IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LOS ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCION MECANICA.

1.03.1.- DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que confiere el art. 4.4. de la Norma Foral 14/1.989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, modificada mediante Norma Foral 4/2003, de 19 de marzo, de reforma del Sistema de tributación local fija las cuotas mínimas establecidas en el apartado 1 del citado artículo mediante la aplicación del coeficiente que se expresa en el ANEXO.

1.03.2.- CUOTA TRIBUTARIA

Artículo 2.

En aplicación del coeficiente a que se refiere el artículo anterior, este Impuesto se exigirá con arreglo al cuadro de tarifas que se relaciona en el expresado Anexo.

1.03.3.- GESTION DEL IMPUESTO

Artículo 3.

1. Este Impuesto se exigirá en régimen de autoliquidación en el modelo que al efecto se facilitará por la administración municipal a los

tramitatzen dituzten Gestoriei emango dien ereduan.

2. Zergaren ordainketa autolikidazioa aurkeztuko den unean egingo da.

4. Artikulua.

Zerga hau ordaindu dela egiaztatuko duen dokumentua zorra kitatzeko unean udal Administrazioak emango duen behin-betiko ordainagiria izango da.

5. Artikulua.

1. Zerga honen zorraren ordainketa eguneratuta daukala egiaztatuko duen ziurtagiriaren aurkezpena ezinbesteko baldintza izango da ondorengo espedienteak tramitzeko eskaerari Trafiko Buruzagitzan hasiera emateko:

a) Zirkulatzeko ibilgailuaren gaitasun ziurtapenarena.

b) Ibilgailuaren behin-betiko baxarena.

c) Ibilgailuen erreformarena, Zerga honen ondorioetarako haien sailkapena aldatzen denean.

d) Ibilgailuaren transferentziarena.

e) Ibilgailuaren zirkulazio baimenean azaltzen den subjektu pasiboaren bizileku aldaketarena.

2. Kuota korronteen ordainketa egiaztatuko duen ordainagiriaren aurkezpena ezinbesteko betebeharra izango da, hori aurkeztea eskatzen duten Zergapeko ibilgailuen matrikulazio espedienteari hasiera emateko Trafiko Buruzagitzan.

sujetos pasivos de este Impuesto y a las Gestorías que tramiten los correspondientes expedientes.

2. El pago del Impuesto se efectuará en el momento de la presentación de la autoliquidación.

Artículo 4.

El documento acreditativo del pago de este Impuesto, será el recibo definitivo que expida la Administración municipal en el momento de liberar la deuda.

Artículo 5.

1. La presentación del certificado acreditativo de estar al corriente del pago de la deuda tributaria de este Impuesto, es requisito indispensable para iniciar en la Jefatura de Tráfico la solicitud de tramitación de los expedientes sobre:

a) La certificación de aptitud del vehículo para circular.

b) La baja definitiva del vehículo.

c) La reforma de los mismos, siempre que altere su clasificación o efectos de este Impuesto.

d) La transferencia del vehículo.

e) El cambio de domicilio del sujeto pasivo del que figure en el permiso de circulación del vehículo.

2. La presentación del recibo acreditativo del pago de las cuotas corrientes, será requisito indispensable para iniciar el expediente de matriculación en la Jefatura de Tráfico de los vehículos sujetos al Impuesto que requieran tal requisito.

1.03.4.- KUOTEN ITZULKETA

6. Artikulua.

Zergadunari bere aldeko kuota proportzionala itzuliko zaio, bai ibilgailuari baja eman edota behin-behineko likidazioan gerakin geratutakoa. Zenbatekoa zergadunak duen kontuan sartuko da, diru hori itzultzeko eskaera orria bete beharko da eta honekin batera behin-betiko bajari eta ibilgailuaren matrikulazioari dagokion agiria aurkeztu beharko da.

1.03.4.- DEVOLUCION DE CUOTAS

Artículo 6.

Las cuotas proporcionales que resulten a favor del sujeto pasivo, en el supuesto de baja del vehículo, así como los excesos abonados en su caso en la liquidación provisional, serán devueltos a los sujetos pasivos del impuesto mediante ingreso en cuenta bancaria, una vez se haya cumplimentado el impreso establecido a tal efecto y se aporte la documentación relativa a la baja definitiva y a la matriculación del vehículo.

1.03.5.- HOBARIAK

1.03.5.- BONIFICACIONES

1.03.5.- - Hobariak	1.03.5.- - Bonificaciones
<u>7. Artikulua.</u>	<u>Artículo 7.</u>
<p>1.- %90eko hobaria izango dute ibilgailu fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeitamar urteko antzinatasuna duten ibilgailuek, beti ere eguneroko ibilgailu gisa erabiltzen ez denean. Hobari hau emateko oinarria 3/2019 Foru Arauan ezarritakoari jarraiki jardungo da.</p> <p>Presuntzioa egingo da subjektu pasiboa ez bada beste ibilgailu baten titular, ohiko joan-etorrietarako bere izenean dagoen ibilgailua erabiltzen duela.</p>	<p>1.- Se establece una bonificación del 90% para los vehículos que tengan una antigüedad mínima de treinta años contados a partir de su fecha de fabricación o de su primera matriculación, siempre y cuando no se utilicen como medio de locomoción habitual. La concesión de la misma se efectuará con arreglo a las condiciones establecidas en la Norma Foral 3/2019.</p> <p>Se presumirá que si el sujeto pasivo no es titular de ningún otro vehículo, el vehículo a su nombre es su medio de locomoción habitual.</p>
<p>2.- Halaber, Historikoak diren ibilgailuak %100eko hobaria izango dute.</p> <p>Interesatuak eskaria egiteko ibilgailuaren fitxa teknikoa eta matrikula zenbakia ekarri beharko dituzte.</p>	<p>2.- Asimismo, tendrán un bonificación del 100% los vehículos históricos.</p> <p>Los interesados deberán instar su concesión aportando la ficha técnica del vehículo y su matrícula.</p>
<p>3.- Gutxi kutsatzen duten ibilgailuek hobaria izango dute zergaren kuotan, portzentajeari eta epeari dagokienez, ezaugarriak kontuan hartuta, betiere, idatz-zati hauetako batean ezarritako baldintzak betetzen badituzte:</p>	<p>3.- Los vehículos menos contaminantes gozarán de una bonificación en la cuota del impuesto en el porcentaje y plazo correspondiente según sus características siempre que cumplan las condiciones establecidas en alguno de los siguientes apartados:</p>
<p>a) Motor elektrikoa duten ibilgailuek % 95eko hobaria izango dute zerga-kuotan, lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita bost ekitalditan zehar.</p>	<p>a) Los vehículos de motor eléctrico disfrutarán de una bonificación en la cuota del impuesto del 95 % durante cinco ejercicios a contar desde el de su primera matriculación.</p>

b) Motor hibridoak dituzten ibilgailuek eta erregai gisa gasa erabiltzen dutenek, gas naturala, petroliotik likidotutako gasak zein bioetanola erabili, % 75eko hobaria izango dute zerga-kuotan, lehen aldiz matrikulatzen direnetik hasita bost ekitalditan zehar.	b) Los vehículos de motor híbrido y los que utilicen gas como combustible, bien gas natural, gases licuados del petróleo o bioetanol, disfrutarán de una bonificación en la cuota del impuesto del 75 % durante cinco ejercicios a contar desde el de su primera matriculación.
Hobari hori eskaripekoa da, eta egiaztatu egin behar da ibilgailuak eskatzen diren ezaugarriak betetzen dituela, ibilgailuaren Ezaugarri Teknikoen Txartelaren bitartez; txartel horretan agertzen ez badira, ezaugarri horiek jasoko dituen eta horretarako eskumena duen administrazioak igorriko duen agiri baten bidez frogatu beharko da.	Esta bonificación tiene carácter rogado, debiendo acreditarse que el vehículo posee las características exigidas mediante la Tarjeta de Características Técnicas del mismo o si no figuraran en ella, mediante documento expedido por la administración competente en el que consten.
Hobari hauek jasotzen hasteko epea, eskaria egin eta hurrengo urtean hasiko da eta aurreko urteetako hobariak ezin izango dira eskatu.	Estas bonificaciones surtirán efectos desde el período impositivo siguiente a aquél en que se hubiera efectuado la solicitud.

1.03.6.- SALBUESPENAK

8. Artikulua.

Zerga ordaintzetik salbuetsita daude 14/1989 Foru Arauaren 2.1. artikuluko a) eta g) paragrafo bitartean aipatutako ibilgailuak. Ibilgailua desgaitasuna duten pertsonak garraiatzeko dela joko da Gipuzkoako Foru Aldundiak emaniko desgaitasun-ziurtagiria ekartzen denean. Bertan adieraziko da desgaitasuna duen pertsona ez dela gauza garraio publikoa erabiltzeko, mugitzeko 7 puntuko edo gehiagoko zailtasuna duelako.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- 1.- Desgaitasun ziurtagiri eguneratua.
- 2.- Gidatzeko baimena.
- 3.- Ibilgailuaren zirkulazio-baimena
- 4.- Ibilgailuaren aseguru-polizaren fotokopia, zeinean haren ohizko gidaria agertu behar duen
- 5.- Ibilgailua berak bakarrik erabiltzen duela dioen adierazpen zinpekoa.

1.03.6.- EXENCIONES

Artículo 8.

Están exentos del Impuesto los vehículos señalados en el artículo 2.1. párrafos a) a g) de la Norma Foral 14/1989. Se entiende que un vehículo se encuentra destinado a transporte de personas discapacitadas, cuando se acredite mediante aportación del certificado de discapacidad expedido por la Diputación Foral de Gipuzkoa, que la existencia de dificultad de movilidad que impida la utilización de transportes públicos colectivos a la persona discapacitada es de 7 o más puntos.

Documentación a presentar:

- 1.- Certificado de discapacidad actualizado.
- 2.- Permiso de conducir.
- 3.- Permiso de circulación del vehículo.
- 4.- Fotocopia de la póliza del seguro del vehículo en la que figure el conductor habitual del mismo.
- 5.- Declaración responsable de uso exclusivo del vehículo.

9. artikulua

Salbuespen eskaerak egin ondorengo epealdian egingo dira. Ibilgailu berriek, aldiz, 2 hileko epea izango dute eskaera egiteko Trafiko Zuzendarizan alta eman ondoren.

Artículo 9.

Las exenciones surtirán efecto desde el período impositivo siguiente a aquél en que se hubiera efectuado la solicitud, excepto para los vehículos nuevos que dispondrán de un plazo de 2 meses desde la fecha de alta en la Jefatura de Tráfico.

1.03.7.- ERANSKINA

1.03.7.- ANEXO

Mota eta era guztietako ibilgailuen urteko kuotak hauek dira:

Se fijan para las distintas clases y tipos de vehículo las siguientes cuotas anuales:

1.03.7.7.1 - Karga-mota:		1.03.7.7.1 - Tipo de gravamen:	
Onartutako koefizientea 2,513koa da, ondorengoak izan ezik:		El coeficiente aprobado es el 2,513 excepto:	
A) Turismoak		-	A) Turismos
9 zerga-zaldi baino gutxiago dutenak	2,4170		De menos de 9 caballos fiscales
9 eta 11'99 zerga-zaldi bitartekoak	2,2960		De 9 hasta 11'99 caballos fiscales
12 eta 13'99 zerga-zaldi bitartekoak	2,5000		De 12 hasta 13'99 caballos fiscales
14 eta 15'99 zerga-zaldi bitartekoak	2,2629		De 14 hasta 15'99 caballos fiscales
16 eta 19'99 zerga-zaldi bitartekoak	2,6366		De más de 16 hasta 19'99 caballos fiscales
20 zerga-zalditik gorakoak	2,7051		De 20 caballos fiscales en adelante
B) Trakzio mekanikoko ibilgailuak atoi eta azpiatoiak dituztenean.		-	B) Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica.
1.000 eta 2.999 kg bitartekoa zama erabilgarria dutenak	2,5657		De 1.000 a 2.999 Kg de carga útil
2.999 Kg-tik gorako zama erabilgarria dutenak	2,6183		De más de 2.999 Kg. De carga útil
C) Bestelako ibilgailuak		-	C) Otros vehículos
Ziklomotorrak		2,5008	Ciclomotores
125 cc-tik beherako motorrak	2,5056		Motocicletas hasta 125 cc
125 eta 250 cc bitarteko motorrak	2,5106		Motocicletas de más de 125 hasta 250 cc.
250 eta 500 cc bitarteko motorrak	2,5366		Motocicletas de más de 250 hasta 500 cc.
500 eta 1.000 cc bitarteko motorrak	2,5943		Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 cc.
1.000 cc-tik goragoko motorrak	2,6311		Motocicletas de más de 1.000 cc

1.03.7.7.2 - TARIFAK		1.03.7.7.2 - TARIFAS	
IBILGAILU MOTA ETA INDARRA - KUOTA (€)	-	POTENCIA Y CLASE DE VEHICULO - CUOTA (€)	
A) Ibilgailuak	-	A) Turismos	
9 zerga-zaldi baino gutxiago dutenak	44,45 €	De menos de 9 caballos fiscales	

9 eta 11'99 zerga-zaldi bitartekoak	84,45 €	De 9 hasta 11'99 caballos fiscales
12 eta 13'99 zerga-zaldi bitartekoak	153,25 €	De 12 hasta 13'99 caballos fiscales
14 eta 15'99 zerga-zaldi bitartekoak	194,20 €	De 14 hasta 15'99 caballos fiscales
16 eta 19'99 zerga-zaldi bitartekoak	290,92 €	De más de 16 hasta 19'99 caballos fiscales
20 zerga-zalditik gorakoak	364,81 €	De 20 caballos fiscales en adelante
B) Autobusak	-	B) Autobuses
21 eserleku baino gutxiago dutenak	209,33 €	De menos de 21 plazas
21 eta 50 eserleku bitartekoak	298,14 €	De 21 a 50 plazas
50 eserlekutik goragokoak	372,68 €	De más de 50 plazas
C) Kamioiak	-	C) Camiones
Zama erabilgarria 1.000 kg baino gutxiago dutenak.	106,25 €	De menos de 1.000 Kg. de carga útil
1.000 eta 2.999 kg bitarteko zama erabilgarria dutenak	209,33 €	De 1.000 a 2.999 Kg. de carga útil
2.999 eta 9.999 kg bitarteko zama erabilgarria dutenak	298,14 €	De más de 2.999 a 9.999 Kg. de carga útil
9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria dutenak	372,68 €	De más de 9.999 Kg. De carga útil
D) Traktoreak	-	D) Tractores
16 zerga-zaldi baino gutxiago dutenak	44,40 €	De menos de 16 caballos fiscales
16 eta 25 zerga-zaldi bitartekoak	69,79 €	De 16 a 25 caballos fiscales
25 zerga-zaldi baino gehiago dutenak	209,33 €	De más de 25 caballos fiscales
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuak atoi eta azpiatoiak dituztenean.	-	E) Remolques y semirremolques arrastrados por vehículos de tracción mecánica.
Zama erabilgarria 1.000 Kg. baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiago dutenak	44,40 €	De menos de 1.000 Kg. y más de 750 Kg. de carga útil
1.000 eta 2.999 kg bitartekoa zama erabilgarria dutenak	71,25 €	De 1.000 a 2.999 Kg de carga útil
2.999 Kg-tik gorako zama erabilgarria dutenak	218,10 €	De más de 2.999 Kg. De carga útil
F) Bestelako ibilgailuak	-	F) Otros vehículos
Ziklomotorrak	11,28 €	Ciclomotores
125 cc-tik beherako motorrak	11,30 €	Motocicletas hasta 125 cc
125 eta 250 cc bitarteko motorrak	19,38 €	Motocicletas de más de 125 hasta 250 cc.
250 eta 500 cc bitarteko motorrak	39,19 €	Motocicletas de más de 250 hasta 500 cc.
500 eta 1.000 cc bitarteko motorrak	80,16 €	Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 cc.
1.000 cc-tik gorako motorrak	162,58 €	Motocicletas de más de 1.000 cc

1.04.-ZERGA: ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINeko ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua.

Udal honek, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak erregulatzeko dituen Foru Arauan eta tributuari dagokion Foru Arauan aurrikusitakoaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezarri eta exigitzen du, Ordenantza honi jarraiki, tarifa aplikagarriak biltzen dituen Eraskina parte delarik.

2. Artikulua.

Ordenantza udal mugarte osoan aplikatzen da.

II. ZERGA EGITATEA.

3. Artikulua.

Hirigintza obretarako lizentzia lortu beharra exigitzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteak osatzen du zerga honen zerga egitate, lizentzia hori jaso edo ez jaso arren, edo erantzukizunezko aitortpena edo aurretiazko komunikazio aurzketu beharra dagoenean, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea Udala honi badagokio.

Artículo 4.

1.04.-IMPUESTO: ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.

I. DISPOSICIONES GENERALES.

Artículo 1.

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo establece y exige el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo en el que se contienen las tarifas aplicables.

Artículo 2.

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

II. HECHO IMPONIBLE.

Artículo 3.

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija la obtención de la correspondiente licencia de obras urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa, siempre que la expedición de la licencia o la actividad de control corresponda a este Ayuntamiento.

Artículo 4.

A título enunciativo, constituyen supuestos del hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

1.- Oin berriko eraikuntza edo instalazioak eraikitzeke obra mota guztiak.

2.- Eraikuntza eta instalazio mota guztiak handitu edo zabaltzeko obrak.

3.- Eraikuntza eta instalazio ororen egituraren eragina izan dezaketen aldakuntza edo berrikuntzak.

4.- Egun dauden mota guztietako eraikin eta instalazioen kanpoaldeko itxura aldaketa guztiak.

5.- Eraikinen barne antolakera aldatzen duten obrak, haien erabilera edozein izanda ere.

6.- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 37. artikulua aipatzen dituen behin-behineko izaera duen egin beharreko obra oro.

7.- Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

8.- Lur-higidurak, hala nola lurrerauzketak, lurberdinketak, hondeaketak eta beteketak, baldin eta eginkizun horiek Urbanizazio Proiektu batean edo onetsi nahiz baimendutako Eraikuntza burutzeko egin beharreko obra zehatzak eta programatuak ez badira.

9.- Eraikuntzen eraispena, berehala aurrin deklaratzekotan ez badira.

10.- Lurrazpiko instalazioak, alegia, aparkalekuetara, industri, merkataritza edo lanbide ihardueretara, zerbitzu publikoetara edo zorupea destinatzen deneko beste edozein erabileretara destinatuko direnak.

A título enunciativo, constituyen supuestos del hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

1.- Las obras de construcción de edificaciones o instalaciones de todas clases de nueva planta.

2.- Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.

3.- Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

4.- Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

5.- Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.

6.- Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el art. 37 de la ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo.

7.- Las obras de instalación de servicios públicos.

8.- Los movimientos de tierra, tales como desmontes, explanaciones, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.

9.- La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.

10.- Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11.- Bide publikotik ikus daitezkeen propagandako kartelen ezarpena.

12.- Udalak burutzeko emandako agindupean egindako obrak.

13.- Ekonomi ahalmena duela adieraziko duten baliabide ekonomikoen inbertsioa eta obra edo hirigintza lizentziari atxikitako edozein obra, eraikuntza edo instalazio.

5. Artikulua.

Zerga honen pean ez dira egongo Udal honi dagokion titulartasun dominikaleko higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, obraren jabe izateko baldintza Udalak betetzen badu.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren ordainketatik salbuesten da, Estatua, Euskal Autonomi Elkartea, Lurralde Historikoak edo Toki Entitateak beraien jabe izanik eta berari lotuta egonik, errepidetara, trenbidetara, portutara, aireportutara, obra hidraulikotara, herrien eta hauen hondakin uraren saneamendutara zuzenean destinatuko diren eraikuntza, instalazio edo obren burutzapena, nahiz eta beraien kudeaketa Organismo Autonomoek burutu, bai inbertsio berriko obren kasuan, eta bai kontserbazio obren kasuan ere.

III. SUBJEKTU PASIBOAK.

6. Artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, pertsona fisiko eta juridikoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren

11.- La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.

12.- Las obras realizadas amparadas en órdenes de ejecución por parte del Ayuntamiento.

13.- Cualesquiera obras, construcciones o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanísticas.

Artículo 5.

No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

Se exime del pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, Comunidad Autónoma Vasca, Territorio Foral o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión como de conservación.

III. SUJETOS PASIVOS.

Artículo 6.

Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el apartado 3 del

8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 35 artikulua en 3. apartatuan aipatzen dituen entitateak, eta testamendu-ahalordea erabili gabe duten herentziak, betiere eraikuntza, instalazio edo obraren jabe badira, haiek egiten diren ondasun higiezinaren jabeak izan edo ez.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren gastu edo kostuak zeinek jasaten dituen, hura hartuko da haien jabetzat.

7. Artikulua.

Eraikuntza, instalazio edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordeko subjektu pasibotzat hartuko dira lizentziak eskatzen dituztenak, erantzukinezko aitortpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordezkoak zergadunari exijitu ahal izango dio ordaindutako zerga kuota zenbatekoa.

IV. OINARRI ZERGAGARRIA.

8. Artikulua.

Eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuak eratzeko Zergaren oinarri ezargarria; ondorio horietarako, kostu hori eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostu materiala dela jotzen da.

Oinarri ezargarriak kanpo geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta erregimen berezietako antzeko beste zergak, eraikuntza, instalazio edo obrekin lotuta egon litezkeen tasa,

artículo 35 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como las herencias que se hallen pendientes del ejercicio de un poder testatorio, que sean dueños de la construcción, instalación y obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquella.

A los efectos previstos en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

Artículo 7.

En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente, tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas o quienes realicen las construcciones, instalaciones u obras.

El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

IV. BASE IMPONIBLE.

Artículo 8.

La base imponible del Impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquélla.

No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones

prezio publiko eta udal mailakok gainerako ondare-prestazioak, eta, orobat, profesionalen ordainsariak, kontratistaren mozkin enpresariala eta hertsia-hertsian exekuzioaren kostu materiala osatzen ez duten bestelako kontzeptuak.

Aurreko puntuan xedatutakoaren arabera, kontuan hartuko da interesatuek aurkeztutako material aurrekontua, beti ere dagokion elkargo Ofizialak onetsi beharko duelarik.

Aurreko puntuan ezarritako ezaugarriak aurrekonturik ez bada aurkezten, eta baldin eta legezko lizentziarik gabeko eraikuntza, instalakuntza eta obrak badira, udal teknikariak izango dira oinarri zergagarria ezarriko dutenak, balioetsitako proiektuaren zenbatekoaren arabera.

V. TRIBUTU KUOTA.

9. Artikulua.

Zerga oinarriari Eraskinean adierazten den karga tasa aplikatzearen emaitza izango da zerga honen kuota.

VI. SORTZAPENA.

10. Artikulua.

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan gertatzen da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

VII. KUDEAKETA.

patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio empresarial del contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material

A efectos de lo dispuesto en el número anterior, se atenderá al presupuesto de ejecución material presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiere sido visado por el Colegio Oficial correspondiente.

En el supuesto de inexistencia de presupuesto con las características indicadas en el apartado anterior así como en el caso de construcciones, instalaciones y obras para las que no se haya obtenido la preceptiva licencia, la base imponible será determinada por los técnicos municipales de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

V. CUOTA TRIBUTARIA.

Artículo 9.

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el Anexo.

VI. DEVENGO.

Artículo 10.

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación y obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

VII. GESTION.

11. Artikulua.

Aginduzko lizentzia ematerakoan edo erantzukizunezko aitortpena zein aurretiazko komunikazioa aurkeztean, behin-behineko likidazioa egingo da, zerga oinarria doakienek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuko dela, baldin eta aurrekontu hori dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia bada; horrela ez bada, edo lizentzia lortu ez denean, udal teknikariek proiektuaren kostu zenbatetsiaren arabera zehaztuko dute zerga oinarria.

12. Artikulua.

Dagokion lizentzia eman edo erantzukizunezko aitortpena zein aurretiazko komunikazioa aurkeztu ondoren hasierako proiektua aldatzen bada, behin-behineko likidazio berri bat egiteko aurrekontu berria aurkeztu beharko da lehen proposatua garestitzen denaren arabera.

13. Artikulua.

1. Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta euren egibenetazko kostua ikusiz, Udal Administrazioak, bidezko administrazio egiaztapena eginda, aldatu egingo du, hala badagokio, aurreko atalean aipatzen den zerga oinarria, dagokion behin-betiko likidazioa eginez, eta dagokion zenbatekoa subjektu pasiboari eskatuz edo, hala gertatuz gero, berari itzuliz.

2. Aurreko atalean ezarritakoaren ondorioetarako, obra bukatu edo berau behin-behinerako hartu eta ondorengo lehen hilabetearen barruan, zirkunstantzia honen aitortpena aurkeztuko da Udal Administrazioak eskura jarriko duen inprimakian, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiriarekin, dagokion lanbide elkargoak ikus-onetsia, hau egin ahal denean, eta bertan ziurtatu

Artículo 11.

Cuando se conceda la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o la comunicación previa, se practicará una liquidación provisional, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente; en otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

Artículo 12.

Si concedida la correspondiente licencia o presentada la declaración responsable o la comunicación previa, se modificará el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

Artículo 13.

1. A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia en impreso que facilitará la Administración Municipal, acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el colegio profesional correspondiente, cuando sea viable,

beharko da obren guztizko kostua, proiektu eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industri mozkina eta obren ondorioz egon daitezkeen beste batzuk barne hartuz.

14. Artikulua.

Zergaren likidaziorako, administrazioak lizentzia emateko isiltasun positiboa erabiliko balu, lizentziak, hau espreski emango balu bezala balioko du.

15. Artikulua.

Ordenantza honetan erregulatutako Zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokienez, era berean zerga urrapenen kalifikazioa eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zigorrak erabakitzeari dagokienez, Tributuekiko Foru Arau Orokorrean aurrikusitakoa izango da aplikagarri.

16. Artikulua.

Lizentziaren titularrak edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazio aurkezu duenak obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez burutzea erabakiko balu, idatzi bidez espreski adieraziz, Udalak eginiko behin-behineko likidazioa itzuliko du edo bertan behera utziko.

17. Artikulua.

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuliko du edo bertan behera utziko, titularrak lizentzia berritzea eskatu eta udalak baimenik ematen ez badu.

por la que se certifique el costo total de las obras incluidos los derechos facultativos del proyecto y dirección, beneficio industrial y otros que puedan existir por motivo de los mismos.

Artículo 14.

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

Artículo 15.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto regulado en esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria.

Artículo 16.

Si el titular de una licencia o el que presenta la declaración responsable o la comunicación previa, desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

Artículo 17.

Caducada una licencia el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada, salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

18. Artikulua.

Aipatutako lizentzia lortu ondoren, udal dependentzietan jaso ahal izango da, aurretik autolikidazioari dagokion kuotaren ordainketa egiaztatu beharko delarik.

VIII. SALBUESPENAK HOBARIAK.

19. Artikulua.

Salbuespenak

Zerga honetatik kanpo geratuko dira:

a) Gasaren instalakuntza-lanak. Hots, sare orokorretik etxe edo lokalaren sarrerara eramatekoak.

b) Administrazio lagapen edo kontzesio erregimenean dauden garajeen estalduretan egiten diren obrak. Salbuespena estaldurari dagokion aurrekontuari bakarrik egingo zaio.

c) Jabekideen elkarteek egindako obrei, betiere jabari publikotik jendea bizi den lekuetara joateko traba arkitektonikoak igogailu baten bidez kentzearren emango diren diru laguntzak.

20. Artikulua.

Hobariak

1.04.1.- Hobariak

18. Artikulua.

Una vez concedida la oportuna licencia, ésta podrá ser retirada de las dependencias municipales, una vez se haya justificado el ingreso de la cuota de autoliquidación.

VIII.-EXENCIONES Y BONIFICACIONES.

Artículo 19.

Exenciones

Estarán exentos de este impuesto:

a) Las obras de instalación de gas desde la red general a la entrada de la vivienda o local.

b) Las obras que se realicen en las cubiertas de los garajes en régimen de cesión o concesión administrativa. La exención se aplicará exclusivamente a la parte del presupuesto de obra que corresponda a la cubierta.

c) Las obras subvencionadas a comunidades de propietarios para eliminación de barreras arquitectónicas entre la vía pública y los accesos a edificios residenciales mediante la instalación de un ascensor.

Artículo 20.

Bonificaciones

1.04.1.- Bonificaciones

1.04.1.1 - Hobariak	1.04.1.1 - Bonificaciones
1. Zerga-kuotaren % 95eko hobaria jaso ahal izango dute:	1. Podrán acceder a una bonificación del 95% de la cuota tributaria:
a) Interes bereziko edo udal onurakoak izendatuta daudenean, zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak direlako izendapen hau mereziko dutenek. Izendapena Udaltzako onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.	a) La obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.
b) Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatzekotan, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunaren homologazioa duten kolektoreak edo berokuntzako eta ur beroko sanitarioko sistemak (UBS) eduki behar dituzte.	b) Las obras que incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar o de otras energías renovables. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores o sistemas de calefacción y agua caliente sanitaria (ACS) que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente..
Hobari hori ondorengo balizko egoeran baino ez da aplikatuko: dagokion araudiak aipatutako sistemak instalatzea eskatzen ez duenean.	Dicha bonificación únicamente se aplicará en aquellos supuestos en los que la instalación de los citados sistemas no sea exigible por la normativa correspondiente.
Era berean, hobaria ondorengoetan baino ez da aplikatuko: energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak (eguzkia energia, edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoari) gehitzen dituzten instalazio eta obrarako diru-partidari dagokion kuota zatiaren gainean.	Asimismo, la bonificación se aplicará, únicamente, sobre la parte de la cuota correspondiente a la partida referida a la construcción, instalación y obra que incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar o de otras energías renovables.
c) Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikastetxe publikoetan egindako obrak	c) Las obras realizadas en Centros docentes públicos dependientes del Gobierno Vasco.
2. Zerga-kuotaren % 50eko hobaria jaso ahal izango dute:	2. Podrán acceder a una bonificación del 50% de la cuota tributaria:
a) Azpiegituretan inbertsio pribatuak sustatzeko planekin lotuta dauden obrak, aldezturik udalak hala erabakita.	a) Las obras vinculadas a los planes de fomento de las inversiones privadas en infraestructuras, previa declaración municipal.
b) Alokatzeko etxebizitza sozialetan eta salmentara bideratutakoetan egingo diren obrek, betiere Administrazio Publikoek (Eusko Jaurlaritza eta Udalak) sustatuak baldin badira.	b) Las obras en viviendas sociales destinadas al alquiler y para las destinadas a la venta, siempre que sean promovidas por las Administraciones Públicas (Gobierno Vasco y Ayuntamientos).
c) Administrazio publikoek BOEak sustatutako eraikin, instalazio eta obrei dagozkienak, zuzenean nahiz hitzartutako sustapenen bidez.	c) Las construcciones, instalaciones y obras referentes a V.P.O. promovidas por las administraciones públicas, bien directamente, bien mediante promociones concertadas.
3. Gehienez % 34ko hobaria eskuratu ahal izango dute, Eusko Jaurlaritzaren eskumena duen dagokion Sailak emandako laguntza jaso dutenek, baldin eta horiek ondasun urbanistiko eta eraikuntzak berriztatzeke babestutako jarduerentzako emanak izan badira.	3. Podrán acceder a una bonificación máxima del 34% aquellas licencias urbanísticas, cuyas obras resulten beneficiadas de las ayudas otorgadas por el Departamento competente en la materia del Gobierno Vasco, para las actuaciones protegidas de rehabilitación del patrimonio urbanístico y edificado.
Arestian adierazitako portzentajea, babestutako jardueran sartutako obren titularren elementu komunetan partaidetza,	El porcentaje anteriormente indicado, resultará minorado en función de la participación en los elementos comunes de los

Komunitate osoari buruz, dutenaren arabera gutxituz gertatzen dena izango da.	titulares de las obras incluidas en la actuación protegida, respecto al total de la Comunidad.
4.- Zerga kuotaren %90eko hobaria. Pertsona ezinduen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituzten obrak.	4.- Bonificación del 90% de la cuota tributaria para aquellas obras que mejoren la accesibilidad y las condiciones de habitabilidad de las personas discapacitadas.
Hobari hau likidazioan aplikatuko da zuzenean, obra-lizentzian jasotako datuen arabera.	Esta bonificación se aplicará directamente en la liquidación de acuerdo con los datos de la licencia de obras concedida.
5.- Zerga kuotaren hobaria, A edo B kalifikazioa lortzen duten eraikinen birgaitze energetikorako obrentzat, ehuneko hauen arabera: A mailakoek: %70 B mailakoek: % 50	5.- Bonificación en la cuota tributaria para aquellas obras de rehabilitación energética de edificios que obtengan la calificación A o B, conforme a los siguientes porcentajes: Clase A: 70 % de bonificación. Clase B: 50 % de bonificación.
Aurreko ataletan adierazitako hobariak jaso ahal izateko, (4. atala izan ezik) Udaletxeko erregistroan aurkeztu beharko da eskaera, hirigintzako lizentzia jakinarazten denetik edo adierazpen erantzulea edo aurretiazko komunikazioa egiten denetik kontatzen hasita 2 hilabeteko epean. 3. atalean birgaitzeko jardura babestuetarako aurreikusitako hobarietarako, laguntzak ematen direnean hasiko da kontatzen 2 hilabeteko epea eta ez da aplikatuko fatxadak osorik konpontzeko obretan edo eraginkortasun energetikoko sistema duten estalkien lanetan, horiek zerga berezia dutelako.	Para poder disfrutar de las bonificaciones establecidas en los apartados anteriores (excepto el apartado 4) deberá presentarse en el registro de entrada de este Ayuntamiento la oportuna solicitud en el plazo de 2 meses a partir de la notificación de la correspondiente licencia urbanística o presentación de la declaración responsable o comunicación previa. En el caso de la bonificación prevista en el apartado 3 relativa a actuaciones protegidas de rehabilitación el plazo será de 2 meses desde la concesión de las ayudas y no será aplicable a aquellas obras de arreglo integral de fachadas y/o cubiertas que incorporen sistemas de eficiencia energética por estar sujetas a un tipo de gravamen especial.
Gauza bat baino gehiagogatik hobaritua suertatuz gero, bakarrik hobaririk handienaz baliatu ahal izango da.	En caso de concurrir dos o más supuestos de bonificación, solamente se aplicara por el concepto que posea el porcentaje más alto de bonificación.

1.04.2.- Eranskina

1.04.2.- Anexo

1.04.2.2 - Eranskina		1.04.2.2 - Anexo	
Tarifa eta karga tasa		Tarifa y tipo de gravamen:	
1. Eraikuntza, instalazio eta obraren aurrekontua:	-	1. Presupuesto de construcción, instalación y obra en general:	
- 12.100,00 €ko aurrekontu arte:	3,13 %	- Hasta 12.100,00€ de presupuesto:	
- 12.100,00 €tik goragoko aurrekontua:	5,00 %	- Más de 12.100,00€ de presupuesto:	
2. Negutegiak egiteko obrak eta nekazaritza ekoizpenari adskribatutako elementuek:	2,08 %	2.- Las obras de construcción de invernaderos y elementos adscritos a la producción agraria:	
3.- Hirigune historikoa eraberritzeko lanak:	3,13 %	3.- Las obras de rehabilitación en el casco histórico:	
4.- Ondasun higiezinak eraberritzeko lanak, konponketak, fatxadak margotzea eta teilatuak	3,13 %	4.- Las obras de rehabilitación de inmuebles, referidas a arreglos, pintura de fachadas y	

konpontzea, elementu komunak direnean, eta, baita nekazaritzari lotuta dauden etxeei dagozkienak ere:		reparación de tejados de edificios de viviendas con elementos comunes, así como las realizadas en viviendas vinculadas a explotaciones agropecuarias:
5.- Ohiko etxebizitzarako erabiltzen diren etxeetan egindako lan guztietarako aurrekontua.	-	5.- Presupuesto para todas las obras acometidas en domicilios destinados a vivienda habitual:
- 12.100,00 €ko aurrekontu arte:	2,50 %	- Hasta 12.100,00€ de presupuesto:
- 12.100,00 €tik goragoko aurrekontua:	4,16 %	- Más de 12.100,00€ de presupuesto:
6.- Merkataritza edo lanbide-jardueretarako, zerbitzuetarako eta ostalaritza-eta jatetxe-establezimenduetarako lokalak eraberritzeko edo moldatzeko obrak, betiere lokalak bizitegi- eta zerbitzu-lurzoru hiritarrean badaude.	-	6.-Presupuesto para obras de reforma o acondicionamiento de locales para actividades comerciales, actividades de servicios, establecimientos de hostelería y restauración en suelo urbano residencial y terciario.
- 12.100,00€ko aurrekontu arte:	0,78 %	- Hasta 12.100,00€ de presupuesto:
- 12.100,00€tik gorako aurrekontua:	1,31 %	- Más de 12.100,00€ de presupuesto:
7.- Fatxadak edota estalkiak erabat konpontzeko obrak, beti ere energia-eraginkortasuna hobetzeko sistemak jartzen badira.	1,56 %	7.- Obras de arreglo integral que afecten a fachadas y/o cubiertas que incorporen sistemas de mejora de eficiencia energética.
3.- Baja emateko eskaerak espresuki egingo dira eta indarrean jarriko dira eskatu ondorengo epealdian. Kuota ezin izango da zatikatu. Baja emateko eskatzailearen etxean baimendutako titulu gaitzaile bat baino gehiago egonez gero, eskabidean zehaztu beharko da, baja eman ondoren, horien arteko lehentasuna. Bestela, ez da aldaketarik egingo.

5.- Tasa ez ordaintzeak automatikoki eragingo du tituluari baja ematea. (helbideratuak/helbideratu gabeak).

6.- Urteko lehenengo hiruhilabetean kobratuko da.

de alta y el 31 de diciembre.

El fraccionamiento no se hace extensivo a los siguientes supuestos:

A.- Bajas por cambio de domicilio

B.- Bajas de vehículos.

Otros supuestos:

En caso de sustitución de vehículo, el titular del vehículo sustituido, no tributará por el vehículo nuevo.

En caso de transmisión del vehículo, el comprador tributará como alta nueva en el servicio, salvo que el anterior propietario no lo transfiera a ningún otro vehículo.

2.- El abono es requisito indispensable para la validez del título habilitante.

Este título se mantendrá vigente en los recibos domiciliados hasta solicitar la baja, ya que la domiciliación implica la renovación automática y anual del citado título.

3.- Las solicitudes de baja se realizarán de forma expresa y surtirán efecto a partir del período siguiente a la solicitud. No se realizarán fraccionamientos de cuota. Si existiera más de un título habilitante autorizado en el domicilio del solicitante de la baja, se deberá definir en la solicitud como quedará la prelación entre los mismos tras la baja. En caso contrario, no se realizará ningún cambio.

4.- El impago de la tasa conllevará la baja automática del citado título. (domiciliados/no domiciliados) .

6.- Se cobrará durante el primer trimestre del año.

3.13.-TASA: BABESPEKO ETXEBIZITZEN ZERBITZUA ESKAINTZEA.

3.13.-TASA: PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE VIVIENDAS TUTELADAS.

3.13.1.- SUBJEKTU PASIBOA

3.13.1.- SUJETO PASIVO

1. Artikulua.

Tasa hau babespeko etxebizitzetan bizi diren pertsonak ordaindu beharko dute.

Artículo 1.

Estarán obligados al pago de esta tasa las personas naturales residentes en las viviendas tuteladas.

Bertan sartu ahal izateko ondoko baldintzak eskatuko dira:

Serán requisitos para el ingreso:

* 60 urte baino gehiago edukitzea, edo gutxiago izanez gero, senar-emazte edo antzeko lotura izatea.

* Ser mayor de 60 años o en su caso menor, cuando exista un vínculo de matrimonio o similar.

* Errenteriako izan edo bertan erroldatuta egotea gutxienez eskaera egin baino bi urte lehenago.

* Ser natural o estar empadronado/a con dos años de antigüedad a la fecha de solicitud, en el municipio de Errenteria.

* Gaixotasun kutsakorrik ez edukitzea, ezta ere portaera edo elkarbizitza alda dezakeen ezbehar psikiatrikorik.

* No padecer enfermedad infecto-contagiosa ni alteraciones psiquiátricas que puedan alterar el comportamiento o convivencia.

* Eguneroko bizitzako eginkizunak egiteko gauza izatea eta adinagatik edo diagnostiko ebolutibo zein endekapenekoekin zerikusia izan dezaketenagatik berehala elbarri geratzeko arriskurik gabe. (Mendekotasunaren balorazioan 24 puntu baino gehiago ez edukitzea).

* Ser válido/a en lo referente a las actividades de la vida diaria y no presentar un riesgo inminente de invalidación tanto por motivos de edad avanzada como por asociación a diagnósticos evolutivos o degenerativos. (No tener más de 24 puntos en la valoración de la dependencia).

* Gizarte Zerbitzuak Azpisaileko teknikariak balorazioan egoki jotzea.

* Ser valorado/a como idóneo/a por los técnicos de la subárea de Servicios Sociales.

3.13.2.- KUOTAK

3.13.2.- CUOTAS

2. Artikulua.- Kuotak hauexek izango dira:

Artículo 2.- Las cuotas serán:

3.13.2. - KUOTAK		3.13.2. - CUOTAS	
2.1.- Kuotarik altuena hilabeteko izango da:	709,63 €	2.1.- La cuota máxima mensual se fija en:	
2.2.- Hileroko kuota, pentsioa besterik ez badu, hilabeterako pentsioaren % 75a izango da. Kopuru hau 2.1 idaztian jasotzen den zenbatekoa baino txikiagoa izango da beti. Gainontzeko % 25a beretzat geratuko da, eta aipatu kopurua beti izango da Lanbide arteko gutxieneko Soldataren % 20a baino handiagoa.	-	2.2.- En caso de que el residente no posea más bienes e ingresos que su pensión mensual, la cuota será el resultado de aplicar a su pensión mensual el 75% de la misma hasta el máximo establecido en el apartado 2.1 del presente artículo, quedando el 25% restante para libre disposición, sin que esta cantidad sea inferior al 20% del Salario Mínimo Interprofesional mensual que se disponga cada año.	
2.3.- Ondare finantzieroak baldin baditu, dirua duenak (eskudirutan nahiz aurrezki kontuetan) kuota osoa ordaindu beharko du. Ez da kontuan hartuko pentsioaren zenbatekoa, hots, ondare finantzarioak 9.000,00 €-koak izan arte.	-	2.3.- En caso de que el residente posea bienes financieros, tales como dinero en efectivo, en cuentas financieras y de ahorro, deberá abonar la cuota íntegra, independientemente de su nivel de pensión, hasta que el montante de sus bienes financieros sea igual a la cantidad 9.000,00€.	
2.4.- Ondare higiezinak bakarrik baditu, ordaindu beharreko kuota 2.2. idaztian jasotakoa izango da.	-	2.4.- En caso de que el residente sólo posea bienes inmuebles, la cuota se le asignará siguiendo el procedimiento descrito en el apartado 2.2.	

3.13.3.- KUDEATZEKO ARAUAK

3.- Artikulua.

Behin egoliarra zendutakoan, Udalak bere aldeko zorra kobratu egingo du, egoliarraren diru-kontuetatik, izanez gero.

Ondare Higiezinak baleude, legez dagozkion oinordekoek zorra ordaindu ahal izango dute berori kitatuz. Ez balitz horrela gertatuko, Udala bere eskubideaz baliatu egingo da, juridikoki dagozkion prozedura eta terminoetan lehendik errekonozitutako zorraz.

4. Artikulua.

Ordaintzeko modua: Egoliarrak bere kuotak hile bukaeran ordainduko ditu, horretarako Udalari

3.13.3.- NORMAS DE GESTIÓN

Artículo 3.

Tras el fallecimiento del residente, el Ayuntamiento procederá al cobro de la deuda contraída, reintegrando el importe adeudado de sus cuentas financieras, si lo hubiere.

En el supuesto de existencia de bienes inmuebles, los herederos legales podrán cancelar la deuda abonando el importe de la misma. En caso contrario, el Ayuntamiento ejercerá su derecho sobre la deuda reconocida en los términos y procedimiento que jurídicamente correspondan.

Artículo 4.

Forma de pago: el residente abonará sus cuotas por meses vencidos mediante autorización al

baimena emango dio bera titular gisa azaltzen
den kontuen gain kargatzeko.

Ayuntamiento de reintegro mensual con cargo a
las cuentas en que figure como titular.

3.14.-TASA: ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA.

3.14.-TASA: PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO.

3.14.-.- 1. artikulua.- Xedea

Irizpideak ezartzea, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen duten pertsonak egin beharreko ekarpen ekonomikoa zehazteko.

3.14.-.- Artículo 1.- Objeto.

Establecer los criterios para determinar la aportación económica que tienen que realizar las personas que reciben la prestación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

3.14.-.- 2. artikulua.- Zerbitzua ordaintzera behartuta dauden pertsonak.

a) Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren onura zuzena hartzen duten pertsona fisikoak, ondorengo hauek izan ezik:

- adingabeak izanez gero, adingabeen guraso-ahala, tutoretza edo zaintza egikaritzen duen pertsonak, edo pertsonak, ordaindu beharko du, edo dute, zerbitzua.

- indarrean dagoen legediaren arabera, egitezko zaintzaileek edo legezko ordezkariak ordezkatuak izanez gero, ordezkariak duen pertsonak ordaindu beharko du. Horrelakoetan, ordezkaturik dagoen pertsonaren errenta eta ondarearen kontura egingo da ordainketa. Era berean, ordaindu beharreko zenbatekoa, ordezkaturik dagoen pertsonak duen gaitasun ekonomikoari jarraiki baloratuko da.

3.14.-.- Artículo 2.- Personas obligadas al pago del servicio.

a) Las personas físicas que se benefician directamente del Servicio de Ayuda a Domicilio, salvo que éstas sean:

- menores de edad, en cuyo caso, la persona o personas obligadas al pago serán aquella o aquellas que ostente/n la patria potestad, la tutela o custodia.

- representadas por su guardador/a de hecho o por representante legal en los términos previstos en la normativa vigente, en cuyo caso, la persona obligada al pago, será la persona que ejerce la representación. En estos casos, el pago se hará con cargo a la renta y el patrimonio de la persona representada y así mismo, la cuantía a pagar, se valorará según la capacidad económica que tiene la persona representada.

3.14.-.- 3. artikulua.- Ekarpen ekonomikoa zehaztea.	3.14.-.- Artículo 3.- Determinación de la aportación económica.
3.1.- Onuradun bakoitzaren gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko	3.1.- El cálculo de la capacidad económica de cada persona beneficiaria.
Gaitasun ekonomikoa ondorengo balorazio-elementuen arabera kalkulatu da: <u>diru-sarrerak, ondarea eta emango</u>	La capacidad económica se calcula de acuerdo a los siguientes elementos de valoración: <u>ingresos económicos.</u>

den zerbitzu-mota.		patrimonio y el tipo de servicio que se vaya a prestar.	
- Etxean laguntzeko zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxekoa+personala) izanez gero, bizikidetzaren unitatea osatzen duten kide guztien diru-sarrera garbiak kontabilizatuko dira.		- Si el servicio es de apoyo doméstico y servicio mixto (doméstico+personal), se contabilizan los ingresos netos conjuntos de todos los miembros de la unidad de convivencia.	
- Zerbitzu bakarra laguntza pertsonala ematekoa izanez gero, onuradunaren diru-sarrera garbiak kontabilizatuko dira bakarrik. Senar-emazteak edo bikote formalizatuen kasuan, bi kideen diru-sarrera garbiak batu, erdibitu eta erdi bakar bat hartuko da kontuan.		- Si el servicio es sólo de apoyo personal, se contabilizan sólo los ingresos netos de la persona beneficiaria. En caso de matrimonios o uniones de hecho, se suman los ingresos netos de ambas personas y se divide entre dos, computándose sólo una de las partes.	
Bestalde, ondareari dagokionez ondorengo ondare mugak ezarriko dira bizikidetzaren unitatearen kide kopuruaren arabera. Kontuan hartu behar da bizikidetzaren unitatearen per capita ondareak (ohiko etxebizitza aintzat hartu gabe) ondarearen gehieneko muga hauek gaindituz gero, une horretan indarrean dagoen zerga ordenantzetan ordu bakoitzeko ezarritako prezioa ordainduko dute:		Por su parte, en cuanto al patrimonio se establecen los siguientes límites patrimoniales en función del número de miembros de la unidad convivencial. Hay que tener en cuenta que las unidades convivenciales cuyo patrimonio per cápita (sin computar la vivienda habitual), supere los siguientes máximos patrimoniales, pagarán el total del precio/hora establecido en las ordenanzas fiscales en vigor en cada momento:	
Kide-kopurua / Nº miembros	-	Ondare-gehiengoa / Máximo patrimonial	
1	-	50.000.-€	
2	-	70.000.-€	
3 edo gehiago / 3 ó mas	-	85.000.-€	
3.2.- Erabiltzaile bakoitzak egin beharreko ekarpena kalkulatzeko irizpideak		3.2.- Criterios para determinar la aportación de cada usuario.	
Aurreko atalean zehaztutako ondarearen gehieneko mugak gainditu ezean, beharrezkoa izango da EELZ hartzen duen bizikidetzaren unitate bakoitzak ordaindu beharreko zenbatekoa ezartzea, betiere, hartzen duten zerbitzu-ordu bakoitzeko. Zenbateko hori ezartzeko portzentaje bat aplikatuko da, diru-sarreraren arabera xedaturik dagoena eta udal zerga ordenantzetan une bakoitzean indarrean dagoen orduko prezioaren gainean aplikatzen dena.		En las situaciones en las que no se superan los máximos de patrimonio anteriormente señalados, es necesario establecer una cuantía a pagar por cada unidad convivencial atendida por el SAD y por cada hora de servicio que reciben. La cuantía se establece, aplicando un porcentaje que viene determinado según ingresos económicos y que se aplica sobre el precio/ hora máximo vigente en cada momento en las ordenanzas fiscales municipales.	
<ul style="list-style-type: none"> • Orduko gehieneko prezioa gaur egun 		<ul style="list-style-type: none"> • El precio/hora máximo actual 	
Zerbitzuak orduko izango duen gehieneko prezioa ezarrita dago Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Errenteriako Udalak EELZ finantzatzeko hitzarmenaren baitan.		El precio/hora máximo del servicio viene determinado en el marco del convenio de Financiación del SAD entre la Excm. Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Errentería.	
Errenteriako Udal Etxe Etxeko zerbitzua hartzeagatik orduko gehieneko prezioa 14 eurotan ezartzen da, lanegunetan nahiz jaiegunetan.		El precio máximo del Servicio de Ayuda a Domicilio municipal en Errentería se establece en 14€/hora, sea ésta laboral o festiva.	
Pertsona edo bizikidetzaren unitate bakoitzari aplikatuko zaion portzentajea zehaztea		Determinación del porcentaje a aplicar en cada persona o unidad convivencial	
EELZ hartzen duen pertsona edo bizikidetzaren unitate bakoitzak zerbitzu-ordu bakoitzeko ordaindu beharreko portzentajea, hilean dituen diru-sarreraren tramoaren arabera izango da, hain zuzen ere, ondorengo taulan zehaztukoari jarraiki		El porcentaje que la persona o unidad convivencial beneficiaria del SAD debe de pagar por cada hora de servicio que se le presta, depende del tramo en el que se encuentran sus ingresos económicos mensuales, tal y como se define en	

la siguiente tabla.

3.14.-.- Diru-sarrera tramoak urteko IPREMaren arabera/ Tramos de ingresos según IPREM anual	3.14.-.- Orduko pertsonak ordaindu behar duena: ezarritako orduko prezio maximoaren % / Pago a realizar por hora de prestación: porcentaje del precio/hora máximo establecido
<=120%IPREM	- 1,5%
>120%-125%IPREM	- 4%
>125%-130%IPREM	- 8%
>130%-150%IPREM	- 15%
>150%-175%IPREM	- 24%
>175%-200%IPREM	- 35%
>200%-225%IPREM	- 48%
>225%-250%IPREM	- 61%
>250%-275%IPREM	- 74%
>275%-300%IPREM	- 87%
>300% IPREM	- 100%

3.14.-.- 4. artikulua.- Erabilera askeko zenbatekoa

Erabilera askeko zenbatekotzat hartuko da indarrean dagoen hileroko IPREMaren %137. Bizikidetzaren unitateak kide bat baino gehiago izanez gero, zenbateko horri IPREMaren %44 gehituko zaio bigarren kidearengatik eta IPREMaren %27,5 gainerako kide bakoitzeko.

Aurreko eragiketa egin eta gero, erabilera askeko zenbatekoa bermatu ezean, haren azpiko diru-sarreraren tramoari dagokion ekarpen portzentajea aplikatuko zaio, hurrenez hurren, zenbateko hori bermaturik egon arte.

3.14.-.- Artículo 4.- Cuantía de libre disposición

Se considerará como cuantía de libre disposición el importe referenciado al 137% del IPREM mensual vigente. Si el número de integrantes de la unidad convivencial fuera superior a uno, se añadirá a dicha cuantía el 44% del IPREM por el segundo miembro y un 27,5% del IPREM por cada uno de los restantes miembros.

En el supuesto de que realizada la operación anterior, no se garantice la cantidad de libre disposición, se aplicará el porcentaje de aportación correspondiente el tramo de ingresos inmediatamente inferior hasta que así quede garantizada dicha cantidad.

Nolanahi ere, erabiltzaile orok gutxienez ordaindu beharko du Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak orduko ezarritako prezioaren %1,5; betiere, EELZren Udal Erregelamenduan aurreikusitako salbuespenen bat ez bada.

Etxez etxeko zerbitzuarekin batera erabiltzaileak beste gizarte zerbitzuetako zerbitzuak erabiltzen baditu (eguneko zentroa, etxebizitza babestua,...), dirusarrei kenduko da, zerbitzu hauengatik egiten duen ekarpen kopuru osoa.

3.14.-.- 5.- artikulua.- Premiazko prozedura bidez ezarritako zerbitzuei aplikatu beharreko hasierako tarifa.

EELZren Udal Erregelamendu berrian aurreikusi dira premiazko prozedura bidez hasitako zerbitzuak. Horiek hasierako tarifa bat izango dute, ekarpenen taularen 3. tramoarekin bat etorriko dena eta premiazko zerbitzuari hasiera eman zaion hilabete naturaleko arreta-eguneei aplikatuko zaiona.

Beraz, horrelakoetan egin beharreko hasierako ekarpena orduko gehieneko prezioaren %8 izango da.

Hurrengo hileko lehen egunetik aurrera, dirusarreraren arabera dagokion portzentajea aplikatuko da.

3.14.-.- 6. artikulua.- Kuota kobratzea.

Kuota hileroko kobratuko da, hilabetea amaitu ondoren; betiere, benetan emandako zerbitzuari jarraiki.

3.14.-.- 7. artikulua.- Ekarpenak berrikustea.

En cualquier caso, toda persona usuaria abonará como mínimo el 1,5% del precio/ hora del Servicio de Ayuda a Domicilio, con las excepciones que se contemplen en el Reglamento Municipal regulador del SAD.

En el supuesto de que la persona realice un uso simultáneo de servicios (este servicio con un centro de día, vivienda tutelada,...), se deducirán de los ingresos, la totalidad de la aportación que realiza la persona por la prestación social que utiliza simultáneamente.

3.14.-.- Artículo 5.- Tarifa inicial a aplicar para servicios establecidos por procedimiento de urgencia:

En el nuevo Reglamento municipal del SAD se prevé servicios iniciados por procedimiento de urgencia, que tendrán una tarifa inicial, correspondiente al 3er tramo de la tabla de aportaciones aplicable durante los días de atención del mes natural en el que se haya iniciado el servicio con carácter urgente.

Por tanto, en estos casos la aportación inicial será equivalente al 8% sobre el precio/hora máximo.

A partir del primer día del mes siguiente, se aplicará el porcentaje que corresponda según los ingresos.

3.14.-.- Artículo 6.- El cobro de la cuota resultante.

El cobro se efectuará mensualmente a mes vencido en base a la prestación efectiva del servicio.

3.14.-.- Artículo 7.- Revisión de aportaciones.

Zerbitzua erabiltzailen duten pertsonen egoera ekonomikoa eta ondarearen egoera, aldiro berraztertuko da, eguneratutako errentak doitze aldera.

La situación económica y patrimonial de las personas usuarias del servicio se revisará periódicamente.

3.15.-TASA: ETXEKO ARRETA ZERBITZU OSAGARRIA

1.- artikulua.- Xedea

Etxeko arreta zerbitzu osagarria jasotzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzea da.

2. artikulua.- Subjektu pasiboa

Subjektu pasiboa zerbitzuaz baliatzen den laguna izango da.

3.- artikulua.- Erabiltzailearen ekarpena

Erabiltzailearen ekarpena 0,28 €/orduko izango da.

4. artikulua.- Kobratzeko epea

Tasa hilabetea amaituta kobratuko da.

5.- artikulua.

Ekarpena urtero berrikusiko da.

3.15.-TASA: SERVICIO DE ATENCIÓN DOMICILIARIA COMPLEMENTARIA

Artículo 1.- Objeto

Regular la aportación económica que tienen que realizar las personas por la prestación del servicio de atención domiciliaria complementaria.

Artículo 2.- Sujeto pasivo

El sujeto pasivo es la persona usuaria del servicio.

Artículo 3.- Aportación del usuario

La aportación para todos los usuarios será de 0,28 euros /hora

Artículo 4.- Período de cobro.

El cobro de la tasa correspondiente se realiza a mes vencido.

Artículo 5.- Revisión anual de la aportación

Anualmente se revisará la aportación.

3.16.-TASA: UDAL APARKALEKUEN ZERBITZUA.

3.16.-TASA: PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE APARCAMIENTOS MUNICIPALES.

3.16.1.- 1. Artikulua.

3.16.1.- Artículo 1.

Tarifak taula honen arabera izango dira:

Las tarifas serán con arreglo a la siguiente tabla:

Gehienezko prezioa: minutuko 0,032 €.

Precio máximo por minuto 0,032 €.

Prezio hori gehienezkoa da eta zerbitzuaren esleipendunek beherantz jaitsi dezakete biribilduz.

El referido precio tendrá carácter de máximo y podrá ser redondeado por los concesionarios que presten dicho servicio a la baja.

3.16.1. -		3.16.1. -
Minutuak/Minutos	Prezioa/Precio	Beherantz biribiltzea/Redondeo a la baja
1	0,032 €	0,05 €
2	0,063 €	0,05 €
3	0,095 €	0,10 €
4	0,127 €	0,15 €
5	0,158 €	0,15 €
6	0,190 €	0,20 €
7	0,222 €	0,20 €
8	0,253 €	0,25 €
9	0,285 €	0,30 €
10	0,317 €	0,30 €
11	0,348 €	0,35 €
12	0,380 €	0,40 €
13	0,412 €	0,40 €
14	0,443 €	0,45 €
15	0,475 €	0,50 €
16	0,506 €	0,50 €
17	0,538 €	0,55 €
18	0,570 €	0,60 €
19	0,601 €	0,60 €
20	0,633 €	0,65 €
21	0,665 €	0,65 €
22	0,696 €	0,70 €
23	0,728 €	0,70 €
24	0,760 €	0,75 €

25	0,791 €	0,80 €
26	0,823 €	0,80 €
27	0,855 €	0,85 €
28	0,866 €	0,90 €
29	0,918 €	0,90 €
30	0,950 €	0,95 €
31	0,981 €	1,00 €
32	1,013 €	1,00 €
33	1,045 €	1,05 €
34	1,076 €	1,10 €
35	1,108 €	1,10 €
36	1,140 €	1,15 €
37	1,171 €	1,20 €
38	1,203 €	1,20 €
39	1,235 €	1,25 €
40	1,266 €	1,25 €
41	1,298 €	1,30 €
42	1,329 €	1,35 €
43	1,361 €	1,35 €
44	1,393 €	1,40 €
45	1,424 €	1,45 €
46	1,456 €	1,45 €
47	1,488 €	1,50 €
48	1,519 €	1,50 €
49	1,551 €	1,55 €
50	1,583 €	1,60 €
51	1,614 €	1,60 €
52	1,646 €	1,65 €
53	1,678 €	1,70 €
54	1,709 €	1,70 €
55	1,741 €	1,75 €
56	1,773 €	1,80 €
57	1,804 €	1,80 €
58	1,836 €	1,85 €
59	1,868 €	1,90 €
60	1,899 €	2,00 €

Denbora gehiago izanez gero, berdin kalkulatu litzateke.

De la misma manera se calcularía para periodos de tiempo superiores.

3.16.2.- 2. Artikulua.

3.16.2.- Artículo 2.

Ondorengo bonoak ezartzen dira:

Se fijan los siguientes bonos:

3.16.2. - Ibilgailuak oro har:		3.16.2. - Vehículos en general:	
Goizerako hileko bonoa: (8:00 - 15:00 horas), hileko	88,53 €	Bono mensual de mañana (8:00 a 15:00 horas), al mes	
Arratsalderako hileko bonoa (16:00 - 20:00 horas), hileko	65,62 €	Bono mensual de tarde (16:00 a 20:00 horas), al mes	
24 ordurako hileko bonoa, hileko	120,82 €	Bono mensual 24 horas, al mes	
Gauerako hileko bonoa (20:00 - 9:00 horas), hileko	56,97 €	Bono mensual nocturno (20:00 a 9:00 horas)	

3.16.2. - Motoak:		3.16.2. - Motos:	
24 orduko hileko bonoa, hileko	37,49 €	Bono mensual 24 horas, al mes	
Herriaren onurakoak eta dirua irabaztea asmorik ez duten Elkarteen Erregistroan inskribatutako Elkarantzako, beraien xedea Errenterian merkataritzaren sustapena eta bultzakabada.		Para las Asociaciones inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones sin Animo de lucro de interés municipal cuyo objeto sea la promoción e impulso del comercio en Errenteria.	
100 orduko ticket lotea (bakoitzat ordu 1ekoa): 102,11 €		Lote de 100 tickets de 1 hora c/u: 102,11 €	
200 orduko ticket lotea (bakoitzat ordu 1ekoa): 194,00 €		Lote de 200 tickets de 1 hora c/u: 194,00 €	
300 orduko ticket lotea (bakoitza ordu 1ekoa): 285,91 €		Lote de 300 tickets de 1 hora c/u: 285,91 €	

3.17.-TASA: ETXEBIZITZAK DENBORALDI BATEZ ALOKATZEA.

1. artikulua .Xedea.

Ordenantzaren xedea udal etxebizitzak denboraldi batez alokatzeko tasa arautzea da.

2. artikulua. Subjektu pasiboa.

Subjektu pasiboa zerbitzuaz baliatzen den pertsona izango da, edo beste herri bateko Gizarte Zerbitzuetatik bidalia izan bada, hango Udala.

3. artikulua. Hileroko errenta erabakitze modua.

1.- Hileroko errentaren tasa bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideen kopuruaren, zerbitzua eskatzeko arrazoia eta erabiltzaileen sarreraren arabera izango da.

Zerbitzua eskatzen duen pertsonak edo familiak gastua estaltzen duen aseguru bat badu, tasa osoa ordaindu beharko du.

2.- Zerbitzua jaso eta okupatuko duten familia-unitateko pertsona-kopurua aintzat hartuko da. Ezarritako prezioa etxebizitza erabat beteta egongo bailitzan da, kontuan izanik gehienez ere 6 pertsona sartuko direla. Tasa pertsonako da, ez gelako, horiek konpartitu behar direlako.

3.- Pertsonako edo familiako gutxiengo tasa 15 eguneko egonaldiari dagokiona izango da. Pertsona edo familiak eguneko ezarritako prezioa etxebizitzan sartzen denean ordaindu beharko du.

3.17.-TASA: PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE VIVIENDAS POR ALOJAMIENTO TEMPORAL.

Artículo 1. Objeto.

Esta ordenanza tiene por objeto regular la tasa por prestación del Servicio de viviendas de alojamiento temporal.

Artículo 2. Sujeto pasivo.

El sujeto pasivo es la persona usuaria del servicio, o en el caso de que la persona haya sido derivada desde los servicios sociales de otro municipio, el Ayuntamiento correspondiente.

Artículo 3. Determinación de la renta mensual.

1.- La tasa de la renta mensual variará según el número de personas que componen la unidad convivencial, los motivos por el que se solicita el servicio y los ingresos de los usuarios.

En los casos que la persona o familia que solicita el servicio tengo cobertura de seguro que cubra el gasto, deberá abonar la totalidad de la tasa que le corresponda.

2.- Número de personas de la unidad familiar que accedan al servicio y ocupación. Se establece un precio de ocupación total de la vivienda teniendo una capacidad máxima de 6 personas. La tasa es por persona, no por habitación, las habitaciones son compartidas.

3.- La tasa mínima por persona o familia será la correspondiente a 15 días de estancia. La persona o familia deberá de abonar el precio establecido por día en el momento en que se

ocupe la vivienda.

4.- Erabiltzaileak ez badu ostatuagatik prestaziorik jasotzeko eskubiderik edo Sarrerak Bermatzeko Errentan finkatutakoa baino gutxiago kobratzen badu, gehienez ere hileko sarreren % 20 ordainduko du; hala ere, zenbateko horrek ez du gaindituko ordaintzea dagokion tasaren muga.

4.- En caso de que la persona o familia usuaria no tenga derecho a prestaciones en concepto de alojamiento o cobre menor cantidad que la estipulada por la RGI, abonará como máximo el 20% de sus ingresos mensuales, sin que dicha cuantía supere el límite de la tasa general que le corresponde pagar

5.- Aparteko kasuetan, erabiltzailea ordainketatik salbuetsi ahal izango da, betiere Udaleko gizarte zerbitzuek hala erabakitzen badute.

5.- Excepcionalmente la persona o familia usuaria podrá quedar exenta de pago siempre que así lo determinen desde los servicios sociales municipales.

6.- Tasa hauek ordaindu beharko dira:

6.- Las tasas a abonar serán las siguientes:

3.17..- Tasak

3.17..- Tasas

3.17.. - Tasak		3.17.. - Tasas	
Etxebizitza osoa, hilabeteen minimoa	156,23 €	Toda la vivienda, mínimo al mes	
Etxebizitza osoa, eguneko prezioa	10,41 €	Toda la vivienda, precio por día	
1 pertsona, hilabeteen minimoa	62,49 €	1 persona, mínimo al mes	
1 pertsona, eguneko prezioa	4,18 €	1 persona, precio por día	
2 pertsona, hilabeteen minimoa	124,98 €	2 personas, mínimo al mes	
2 pertsona, eguneko prezioa	8,32 €	2 personas, precio por día	
3 pertsona, hilabeteen minimoa	156,23 €	3 personas, mínimo al mes	
3 pertsona, eguneko prezioa	10,41 €	3 personas, precio por día	

**3.18.-TASA: HAUTAKETA
PROZESUETAN
PARTEHARTZEAGATIK TASA.**

**3.18.-TASA POR PARTICIPACIÓN
EN PROCESOS SELECTIVOS.**

3.18.1.- TARIFAK.

3.18.1.- TARIFAS.

3.18.1. - Tarifak		3.18.1. - Tarifas	
Plantillako lanpostuak betetzeko hautaketa prozesu arruntetan parte- hartzeagatik, barne promoziokoak izan ezik.	10,41 €	Por participación en procesos selectivos ordinarios para cubrir plazas de plantilla, salvo en procesos de promoción interna	
Egonkortze prozesu berezietan plantillako lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuetan parte- hartzeagatik.	20,00 €	Por participación en procesos selectivos extraordinarios de estabilización para cubrir plazas de plantilla.	
Tasa ordaintzetik salbuetsitako kasuak: - % 33 edo minusbaliotasun handiagoa dutenak. - Eskaera egiteko unean langabezian dauden pertsonak, prozesuaren deialdia egiten den egunean gutxienez hilabeteko antzintasuna dutenak		Casos de exención del abono de la tasa: - Personas con discapacidad igual o superior al 33 % - Personas que se encuentren en situación de desempleo en el momento de realizar la solicitud con una antigüedad mínima de un mes a la fecha de convocatoria del proceso.	

**3.19.-TASA: KALEAN
ABANDONATURIKO ABEREA
JASO ETA ZAINTEKO
ZERBITZUA.**

**3.19.-TASA: PRESTACIÓN DEL
SERVICIO DE RECOGIDA Y
CUIDADO DE ANIMALES
ABANDONADOS EN LA VÍA
PÚBLICA.**

3.19.- Tarifak

3.19.- Tarifas

3.19.. - Ordaindu beharreko tarifak:		3.19.. - Las tarifas a abonar son las siguientes:	
1.- Egun bakoitzeko egonaldia	--	1.- Cada día de estancia	
- Katuak:	7,37 €	- Gatos:	
Txakurrak:	8,60 €	- Perros:	
2.- Eutanasia	-	2.- Eutanasia	
- Katuak:	66,32 €	- Gatos:	
- Txakurrak:	78,63 €	- Perros:	
3.- 40k. arteraino animalien errausketa	55,27 €	3.- Incineración de un animal hasta 40kg.	
4.- 40 kilo baino gehiagoko animalia baten errausketa	78,60 €	4.- Incineración de un animal de más de 40 kg	
5.- Ibigailua eta bilketarako gaitutako pertsonalaren irteera (animalia jasotzea, irteera hutsak, gorputz hilak jasotzea, tranpa kaiola,...)	67,55 €	5.- Salida del vehículo y personal cualificado para la recogida (recogida de animales, salidas vacías, recogida de cadáveres, colocación de jaulas,..)	
6.- Arma anestesikoaren erabilera	92,11 €	6.- Uso del arma anestésica	
7.- Albaitariaren berrikustea, barru eta kanpoko desparasitazioa eta garbiketa	24,56 €	7.- Revisión veterinaria, desparasitación interna y externa y limpieza	
8.- Txertaketa	27,02 €	8.- Vacunación	
9.- Mikrotxipa ezarri	27,02 €	9.- Implantación de microchip	
10.- Esterilizazioa:	-	10.- Esterilizaciones:	
Katu arra	61,41 €	Gato macho	
Katu emea	98,25 €	Gato hembra	
Zakur arra	66,65 €	Perro macho	
Zakur emea	135,10 €	Perro hembra	
11.- Albaitari inspektzioak	55,27 €	11.- Inspecciones veterinarias	
12.- Ofizial diren albaitari txostenak	73,69 €	12.- Informes veterinarios oficiales	
13.- Zerbitzu bereziak (errondak, ekitaldiak..)	24,56 €	13.- Servicios especiales (rondas, eventos)	
14.- Udaltzaingoko agenteek animalia bide publikotik jasotzea	20,04 €	14.- Recogida de animal de la vía pública por agentes de la Policía Local	
2.artikulua. Subjektu pasiboa		Artículo 2: Sujeto pasivo	
Animalien jabeak dira subjektu pasiboak, kasu honetan ezik:		Son sujetos pasivos los propietarios de los animales excepto en el siguiente caso:	
Animaliaren bilketa eta/edo egonaldia neurri hori hartzeko ahlmena duen beste administrazio edo erakunde publiko batek eskatuta egiten denean, subjektu pasiboa administrazio edo erakunde hori izango da.		Cuando la recogida y/o estancia del animal tenga lugar a petición de otra Administración u Organismo Público con potestad para tomar esta medida, en cuyo caso el sujeto pasivo será dicha Administración u Organismo.	

**4.-PREZIO PUBLIKOA:
ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL
JARDUERAK BURUTZEAGATIKO
PREZIO PUBLIKOAK
ERREGULATZEN DITUEN
ORDENANTZA.**

**4.-PRECIO PÚBLICO:
ORDENANZA REGULADORA DE
LOS PRECIOS PUBLICOS POR LA
PRESTACION DE SERVICIOS O
LA REALIZACION DE
ACTIVIDADES MUNICIPALES.**

4.1.- XEDAPEN OROKORRAK

4.1.- DISPOSICIONES GENERALES

1. Artikulua.

Eranskineko tarifetan zehaztutako zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik prezio publikoak ezarri eta exijitzen dira, Ordenantza honetan bildutako arauen arabera, haien parte baitira.

Artículo 1.

Se establecen y exigen precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades especificados en las tarifas del Anexo, y según las normas contenidas en esta Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

2. Artikulua.

Ordenantza udal mugarte osoan aplikatuko da.

Artículo 2.

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

4.2.- ORDAINTZERA BEHARTUAK

4.2.- OBLIGADOS AL PAGO

3. Artikulua.

Ordenantza honetan erregulatutako prezio publikoak zerbitzu edo jardueren onura jasotzen dutenek ordainduko dituzte edo, horrela badagokio, haur onuradunen guraso, tutore edo legezko ordezkariak.

Artículo 3.

Los precios públicos regulados en esta Ordenanza se satisfarán por quienes se beneficien de los servicios o actividades o, en su caso, por los padres y madres, tutores o representantes legales de los menores beneficiarios.

4.3.- TARIFAK

4.3.- TARIFAS

4. Artikulua.

Ordenantza honetan erregulatutako prezio

Artículo 4.

Las tarifas por precios públicos regulados en esta

publikoengatiko tarifak Eranskinean bildutakoak dira.

Zenbait prezio publikok tarifen eskala bat ezartzen dute erabiltzailearen edo haren bizikidetzaren unitatearen gaitasun ekonomikoaren arabera, errenta eta ondaren maila kontuan hartuta.

5. Artikulua.

Tarifen ordainketa gaitasun ekonomikoaren arabera.

Prezio publiko hauei aplikatuko zaizkie:

4.3.- Prezio publikoa: Uztargi haurreskolan jangela zerbitzua.

4.4.- Prezio publikoa: udal euskaltegiak eskaintzen dituen zerbitzuak.

4.6.- Prezio publikoa: udal tailer ezberdinek eskaintzen dituzten zerbitzuen erabilpena.

4.7.- Prezio publikoa: *Udako oporrak*, udal ludotekak eta familia gunea zerbitzuetan parte hartzea.

Gaitasun ekonomikoaren araberako tarifa ordaindu ahal izateko, ezinbestekoa izango da UdalOgasunarekiko zerga-betebeharrakegunean izatea.

Terminoen definizioa, errenta- eta ondare-eskakizunak eta kalkulu arauak

A.- Terminoen definizioa

1.- Gaitasun ekonomikoa. Gaitasun ekonomikoa errentaren eta ondarearen mailaren eta erabiltzailearen sailkapenaren arabera kalkulatu da.

Ordenanza, son las que se contienen en el Anexo.

Determinados precios públicos establecen una escala de tarifas según la capacidad económica de la persona usuaria o, en su caso, de la unidad de convivencia en función de su nivel de renta y patrimonio.

Artículo 5.

Pago de tarifas en función de capacidad económica.

Serán aplicables a los siguientes precios públicos.

4.3.- Precio Público: Servicios de Comedor en Uztargi Haurreskola

4.4.- Precio Público: Prestación de Servicios en Euskaltegi Municipal.

4.6. Precio Público: Utilización de los Servicios ofrecidos por los diversos talleres municipales.

4.7.- Precio Público: Participación en los Programas *Udako Oporrak*, Ludotekas Municipales y Familia gunea.

Será condición indispensable para poder optar al pago de tarifa en función de la capacidad económica estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias con la Hacienda Municipal.

Definición de términos, requisitos de renta y patrimonio y reglas para el cálculo

A.- Definición de términos

1.- Capacidad económica. La capacidad económica se calculará en función del nivel de renta y patrimonio y de la clasificación de la persona usuaria.

2.- Erabiltzaileak. Bitan sailkatzen dira:

a.- Erabiltzaile adinez nagusia

b.- Erabiltzaile adingabea

Erabiltzailea adinez nagusia bada, bakoitzaren gaitasun ekonomikoa hartuko da kontuan.

Erabiltzailea adingabea bada, bizikidetzak unitatearen gaitasun ekonomikoa hartuko da kontuan.

3.- Bizikidetzak-unitatea. Erabiltzailea adingabea denean, etxebizitza berean errolatutako 25 urtetik beherako gurasoek eta 25 urtetik beherako anai-arrebek .

Gurasoak bananduta badaude eta zaintza partekatua badago, bizikidetzak-unitatea bi gurasoek osatuko dute, nahiz eta horietako bat erabiltzailearekin errolatuta ez egon.

4.- Guraso bakarreko familia. Erabiltzaile-mota edozein dela ere, etxebizitza berean 25 urtetik beherako seme-alabak eta guraso bakarra errolatuta dauden eta zaintza partekaturik ez duten bizikidetzak-unitateak hartuko dira halakotzat.

5.- Bi gurasodun familia. Erabiltzaile-mota edozein dela ere, etxebizitza berean 25 urtetik beherako seme-alabekin bi guraso errolatuta daudenak hartuko dira halakotzat; edo bi gurasoak ez badira helbide berean bizi, zaintza partekatua badago.

6.- Erabiltzaile kaltebera. Adinez nagusi den erabiltzailea izango da, baldin eta zerbitzua eskatzeko unean Diru-sarrerak Bermatzeko

2.- Personas usuarias. Se clasifican en dos:

a.- Persona usuaria mayor de edad.

b.- Persona usuaria menor de edad.

Si la persona usuaria es mayor de edad se tendrá en cuenta su capacidad económica individual.

Si la persona usuaria es menor de edad se tendrá en cuenta la capacidad económica de la unidad de convivencia.

3.- Unidad de convivencia. Cuando la persona usuaria sea menor de edad, se considerarán, junto con dicha persona, padres, madres y hermanos o hermanas menores de 25 años, empadronados en el mismo domicilio

En el supuesto de que las personas progenitoras estuvieran separadas y existiera una custodia compartida, la unidad de convivencia estará integrada por las dos personas progenitoras, aun cuando una de ellas no estuviera empadronada con la persona usuaria.

4.- Familia monomarental o monoparental. Con independencia del tipo de usuario, tendrán dicha consideración aquellas unidades de convivencia en las que figuren empadronados en el mismo domicilio hijas o hijos menores de 25 años y una sola persona progenitora y no exista custodia compartida.

5.- Familia biparental. Con independencia de tipo de persona usuaria, tendrán dicha consideración aquellas unidades de convivencia en las que figuren empadronados en el mismo domicilio dos personas progenitoras con sus hijas o hijos menores de 25 años, o no conviviendo ambos progenitores en el mismo domicilio, existan custodia compartida.

6.- Usuario vulnerable. Tendrá dicha consideración la persona usuaria mayor de edad que en el momento de solicitar la prestación del

Errenta (DBE) edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) jasotzen baditu edo langabezia badago.

servicio sea perceptora de Renta de Garantía de Ingresos (RGI) o Ayudas de Emergencia Social (AES) o figure en situación de desempleo.

4.3.01 - ERRENTA ETA ONDARE BALDINTZAK		4.3.01 - REQUISITOS DE RENTA Y PATRIMONIO	
<u>Errenta</u>		<u>Renta</u>	
Urteko errenta mugak (ondoren adierazitako arauen arabera kalkulatuta) eta prezio publikoen tarifa osoen gaineko ordainketa-ehunekoa taula honen arabera aplikatuko dira:		Los límites de renta anual (calculada de acuerdo con las reglas que se señalan a continuación) y el porcentaje de pago sobre el total de las tarifas de los precios públicos serán los siguientes:	
Dohainik	-	Gratuito	
Errentak dituzten persona kp. / N° de personas con rentas *	-	Urteko errenta / Renta anual	
1	-	< 13.780,20 €	
2	-	< 18.096,16 €	
3	-	< 21.465,66 €	
4	-	< 24.359,23 €	
5	-	< 27.153,24 €	
6	-	< 29.797,96 €	
Tarifaren % 35a	-	35% tarifa	
Errentak dituzten persona kp. / N° de personas con rentas *	-	Urteko errenta / Renta anual	
1	-	13.780,21 € - 19.850,85 €	
2	-	18.096,17 € - 26.068,14 €	
3	-	21.465,67 € - 30.922,02 €	
4	-	24.359,24 € - 35.090,31 €	
5	-	27.153,25 € - 39.115,17 €	
6	-	29.797,97 € - 42.924,99 €	
Tarifaren %75a	-	75% tarifa	
Errentak dituzten persona kp. / N° de personas con rentas *	-	Urteko errenta / Renta anual	
1	-	19.850,86 € - 25.929,89 €	
2	-	26.068,15 € - 34.051,13 €	
3	-	30.922,03 € - 40.391,45 €	
4	-	35.090,32 € - 45.836,22 €	
5	-	39.115,18 € - 51.093,63 €	
6	-	42.925,00 € - 56.070,15 €	
Tarifa osorik	-	Tarifa completa	
Errentak dituzten persona kp. / N° de personas con rentas *	-	Urteko errenta / Renta anual	
1	-	25.929,90 € <	
2	-	34.051,14 € <	
3	-	40.391,46 € <	
4	-	45.836,23 € <	
5	-	51.093,64 € <	

6	-	56.070,16 € <
* Bizikidetzta-unitate berean diru-sarrerak jasotzen dituzten pertsonen kopurua	* Número de personas con ingresos dentro de la unidad convivencial.	
Erabiltzailea adinez nagusia bada, bere diru-sarrerak bakarrik hartuko dira kontuan.	Si la persona usuaria es mayor de edad únicamente se tendrán en cuenta sus ingresos.	
Era berean, kalteeratasun egoeran dauden adin nagusiko erabiltzailei, aldez aurretik eskatuta, doako tarifa dagokie, edozein dela bere errenta- edo ondare-maila.	Adicionalmente, a las personas usuarias mayores de edad en situación de vulnerabilidad les corresponderá, previa petición, la tarifa gratuita, independientemente de su nivel de renta o patrimonio.	
<u>Ondarea</u>	<u>Patrimonio</u>	
Aurreko epigrafean xedatutako errentaren araberako baremoa aplikatu ahal izateko, ondoren adierazitako arauen arabera kalkulaturako ondarearen balioa ezin izango da 100.000 € baino handiagoa izan adin nagusiko erabiltzaileentzat, eta 200.000 € baino handiagoa adingabeentzat.	Para poder aplicar el baremo según la renta establecido en el epígrafe anterior, el valor del patrimonio calculado de acuerdo con las reglas que se señalan a continuación no podrá ser superior a 100.000 € para las personas usuarias mayores de edad y de 200.000 € para las menores de edad.	
Desgaitasunen bat izanez gero, aurreko muga horiei 30.000 € gehituko zaizkie, erabiltzaile mota edozein dela ere.	Los límites anteriores se incrementarán en 30.000 € en el caso de discapacidad con independencia del tipo de usuario.	
Kasuan kasu ezarritako muga gaindituz gero, tarifaren %100a ordaintzea dagokio.	En caso de superar el límite establecido para cada caso, procederá abonar el 100% de la tarifa.	
<u>Errenta eta ondare maila kalkulatzeko arauak</u>	<u>Reglas para el cálculo del nivel de renta y patrimonio.</u>	
<u>Errenta kalkulatzeko arauak.</u>	<u>Reglas para el cálculo del nivel de renta.</u>	
Errenta (erabiltzaile motaren arabera, banakakoaren edo bizikidetzta-unitatearen) diru-sarreraren eta, hala badagokio, kenkarien arteko aldea izango da.	La renta vendrá dada por la diferencia entre los ingresos (individuales o de la unidad de convivencia, según el tipo de usuario) y las deducciones que en su caso correspondan.	
Diru-sarrerak kalkulatzeko, aurreko ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Aitorpenaren kontzeptu hauen batura hartuko da kontuan: a.- Lanaren errenta. b.- Jarduera ekonomikoen errentak. c.- Higiezinaren kapitalaren errentak. d.- Higigarrien kapitalaren errenta. e.- Ondare irabaziak.	Para el cálculo de los ingresos se tendrá en cuenta la suma de los siguientes conceptos de Declaración del Impuesto sobre la Renta de Personas Físicas del ejercicio anterior: a.- Rendimientos de trabajo. b.- Rendimientos de actividades económicas c.- Rendimientos de capital inmobiliario d.- Rendimientos de capital mobiliario e.- Ganancias patrimoniales.	
Errentaren gaineko Zergaren Aitorpena egiten ez bada, kontuan hartuko dira enpresaren ziurtagiriaren (10-T), Gizarte Segurantzaren Instituto Nazionalaren ziurtagiriaren bidez egiaztatutako diru-sarrerak.	En caso de no realizar la declaración del Impuesto sobre la Renta se tendrán en cuenta los ingresos acreditados mediante certificado de empresa (10-T), Instituto Nacional Seguridad Social , etc.	

4.3.02 - KENKARIAK	4.3.02 - DEDUCCIONES
---------------------------	-----------------------------

A.- ADINEZ TXIKIKO ERABILTZAILAK	-	A.- PERSONAS USUARIAS MENORES DE EDAD
Ondoren zehazten diren kenkari hauek metagarriak dira haien artean, segidan, aurrez ezarritako ordenan, eta bizikidetz-unitatearen guztizko sarreraren gainean aplikatuko dira.	-	Estas deducciones son acumulativas entre ellas y se aplicarán sucesivamente, en el orden preestablecido sobre la totalidad de ingresos de la unidad de convivencia.
a.- Guraso bakarreko familia bada	10 %	a.- Familia monoparental o monomarental
b.- Bizikidetz-unitatean dauden 25 urtetik beherako kide bakoitzeko:	-	b.- Por cada menor de 25 años que integre la unidad de convivencia:
- Lehen seme-alabarengatik	2.000 €	- Primer hijo o hijo
- Bigarren seme-alabarengatik	2.000 €	- Segundo hijo o hijo
- Hirugarren eta ondoko seme-alabarengatik	3.000 €	- Tercera hijo o hijo y siguientes
c.- Desgaitasuna duen bizikidetz-unitateko kide bakoitzeko	-	c.- Por cada miembro de la unidad de convivencia con discapacidad:
- %33 edo gehiago eta %65 baino gutxiagoko desgaitasunagatik	1.800 €	- Igual o mayor al 33% e inferior al 65%
- %65 edo gehiagoko desgaitasunagatik	4.000 €	- Superior al 65%
B.- ADINEZ NAGUSIKO ERABILTZAILAK	-	B.- PERSONAS USUARIAS MAYORES DE EDAD
a.- Erabiltzailea guraso bakarreko familia baten burua bada	10 %	a.- Si la persona es progenitora de una familia monoparental o monomarental
b.- Erabiltzailearekin batera erroldatua dagoen edo zaintza partekatuko erregimena duen 25 urtetik beherako seme-alaba bakoitzeko:	-	b.- Por cada hijo o hija menor de 25 años que figure empadronado junto con la persona usuaria o sobre el que establecido un régimen de custodia compartida:
- Lehen seme-alabarengatik	1.000 €	- Primer hijo o hijo
- Bigarren seme-alabarengatik	1.000 €	- Segundo hijo o hijo
- Hirugarren eta ondoko seme-alabarengatik	1.500 €	- Tercera hijo o hijo y siguientes
Erabiltzailea guraso bakarreko familia baten burua bada, kopuru hauek bikoiztu egingo dira.	-	Si la persona es progenitora de una familia monoparental o monomarental, estos importes se duplicarán.
c.- Erabiltzaileak edo b. atalean zehaztutako pertsonaren batek desgaitasunen bat badu:	-	c.- En caso de discapacidad de la persona usuaria o de alguna de las personas descritas en el apartado b.
- %33 edo gehiago eta %65 baino gutxiagoko desgaitasunagatik 1.800 € / desgaitasuna duen pertsona bakoitzeko	-	- Igual o mayor al 33% e inferior al 65%: 1.800 € / persona con discapacidad
- %65 edo gehiagoko desgaitasunagatik: 4.000 € / desgaitasuna duen pertsona bakoitzeko	-	- Superior al 65%: 4.000 € / persona con discapacidad
b. atalean zehaztutako pertsonen kasuan, bi gurasoko familia osatzen bada edo zaintza partekatuko erregimenean badaude, dagokion zenbatekoen erdia aplikatuko da.	-	Se aplicará la mitad del importe correspondiente en el caso de personas descritas en el apartado b., si integran una familia biparental o en régimen de custodia compartida.
<u>Ondarea kalkulatzeko arauak.</u>		<u>Reglas para el cálculo del nivel de patrimonio.</u>
Ondarearen balioztat hartuko da (erabiltzaile motaren arabera, banakakoaren edo bizikidetz-unitatearen) ondasun hauen balioen batura:		El valor del patrimonio resultará de la suma de los valores de los siguientes bienes (individuales o de la unidad de convivencia, según el tipo de usuario):
a.- Ondasun higiezinaren katastro-balioa, ohiko etxebizitza izan ezik.		a.- Valor catastral de los bienes inmuebles, excluida la vivienda habitual.
b.- Ibilgailuak. Otsailaren 17ko 98/2022 Foru Aginduaren tauletan jasotako zenbatekoak hartuko		b.- Vehículos. Se tomará como referencia los importes recogidos en las tablas de la Orden Foral 98/2022, de

<p>dira erreferentziatzen.</p> <p>c.- Banku-saldok. Aurreko urteko saldoen batez bestekoa hartuko da kontuan.</p>	<p>17 de febrero.</p> <p>c.- Saldos bancarios. Se tendrán en cuenta la media de los saldos del año anterior.</p>
<u>6. Artikulua.</u>	<u>Artículo 6.</u>
Ordainaraz daitezkeen diru-kopuruak eskatu edota burututako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira eta hurrenez hurreneko epigrafeetan adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu, aurreko artikuluan adierazitakoak izan ezik.	Las cantidades exigibles se satisfarán por cada servicio o actividad solicitados o realizados y serán irreducibles las cuantías señaladas en los respectivos epígrafes, salvo lo señalado en el artículo anterior.

4.4.- KUDEAKETA

4.4.- GESTIÓN

7. Artikulua.

Ordenantza honetan adierazten diren zerbitzuak eskaintzeko edo udal jarduerak burutzeko, alde aurretik Udal Administrazioari horiek eskaini edo burutzeko baimena eskatu beharko zaio.

Nolanahi ere, zerbitzu edo jarduera horiek emandakotzat hartuko dira, Ordenantza honetan erregulatutako prezio publikoak ordaintzen badira eta horien epea luzatu ondoren prezio publikoa ez ordaintzeak, zerbitzua eskaintzeko edo jarduera burutzeko aukera galtzea ekarriko du automatikoki

8. Artikulua.

Gaitasun ekonomikoaren arabera tarifa ordaintzeko eskaera.

5. artikuluan zerrendatutako zerbitzuen kasuan, zerbitzua emateko eskabidearekin batera, dagokion tarifaren aplikazioa eskatu beharko du, eta hala badagokio, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu (norberarenak edo bizikidetzak-unitateko kide guztiena, erabiltzaile motaren arabera):

Artículo 7.

Para la prestación de los servicios o realización de actividades municipales a que se refiere esta Ordenanza, se deberá solicitar previamente a la Administración Municipal la prestación o realización de los mismos.

Dichos servicios o actividades se entenderán otorgadas, en todo caso, condicionadas al pago de los precios públicos regulados en esta Ordenanza y una vez prorrogados, la falta de pago del precio público determinará de forma automática la no prestación del servicio o realización de la actividad.

Artículo 8.

Solicitud de pago de tarifa en función de la capacidad económica.

Para los servicios enumerados en el art. 5, cuya tarifa puede calcularse en función de la capacidad económica del usuario, junto con la solicitud de prestación del servicio deberá solicitarse la aplicación de la tarifa correspondiente y, en su caso, aportar la siguiente documentación (individual o de todos los miembros de la unidad de convivencia, según el tipo de usuario)

Errenta-maila justifikatzeko dokumentazioa:

- a) NAN aren fotokopia.
- b) Azken ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Aitorpenaren fotokopia, edo, obligaziorik izan ezean, Foru Ogasunak emandako ziurtagiri negatiboa.
- c) Errenta Aitorpena egiteko betebeharririk ez badu:
 - c.1). Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako lan-bizitzaren ziurtagiria.
 - c.2) Enpresaren ziurtagiria (10-T)
 - c.3) Pentsioetatik edo bestelako kontzeptuetatik datozen diru-sarreraren Gizarte Segurantzako edo bestelako entitate baliokideen pentsio-ziurtagiriak.
- d) Familia-liburuaren fotokopia.
- e) Erabiltzailea Erreterian bizi ez bada, bizikidetzaz-ziurtagiria.
- f) Erabiltzailea edo bizikidetzaz-unitateko kideren batek desgaitasuna izanez gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak edo baliokideak emandako ziurtagiria.
- g) Zaintza partekatuen kasuan, epaiaren kopia.
- h) Erabiltzaile kalteberen kasuan, LANBIDEn ziurtagiria, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duela egiaztatzen duena.

